

Del Burgo eta Nafarroa

Deia, 1977-08-03.

Jaime del Burgo, Nafarroan UCD-ren izenean aukeratua izan da joan den hauteskundeetan.

Honek eman dio, noski, Nafarroako zati baten izenean hitzegiteko eskubidea. neurria ez da tikia, gainera. Baina honek ez du Nafarroaren izenean hitzegiteko aginpiderik ematen.

Hara hemen ikusten ditugun puntu batzu:

1.- UCD-k kanpaina hontan izan dituen bentajak, handiak eta oso nahasgarriak izan dira.

2.- Hala ere, Nafarroan UCD-k %28,5 besterik ez du atera kongresurako; autonomiaz talde honek duen iritziak ez du, bada, nafarroaren hirutik batena ere erakusten.

3.- Ez da Nafarroak Euskal Herriaren zati bezala jokatu duen lehenengo aldia; aspaldiko historiara jo gabe, bi guda karlistetan lau herrialdeak nabarmenki elkarrekin eta bakarrik jokatu dute Espainiaren aurka; 1939-go dekretoa dugu laurak bat izatearen proba garbiena.

4.- Ba dakigu, Euskal Herriko herrialde bakoitzak bere foru-bideak dituela; baina elkarrekikoa askoz ere handiagoa da, bata bestearengandik bereizten duena baino. Peninsulako beste herriekin gonbaratzen bagaituzte, berriz, zer esanik ez.

5.- Noski, haur batek ere ez lituzke Euskal Herri hoiek jatorriz, kulturaz, hizkuntzaz, tradizioz, hartu-emanaz, elkar dituzten loturak zalantzan jarriko.

6.- Fede oneko edonork ba daki, Euzkadi politikoa osatzeko, bakoitzari bereziki zor zaizkion berezkuntza guziak errespetatuz egin nahi dela.

7.- Eta Euzkadi politikoa ez dela kapritxo bat: Herri bezala salbatzeko nahi eta nahiezkoa dela. Gaur salba litekean "errejioak" beste sustraizko gauzez gainera, beste hoiek ere kontuan hartu behar ditu: lurzabalera, demografia, ekonomiaren estruktura. Denak elkarrekin kontuan hartuta bakarrik izango da errejio bat, unitate bezala, salbatzeko.

8.- Guk behar dugu Nafarroa, gure herriaren zati bat delako, eta beste alde praktikotik ere behar dugulako. Eta, Nafarroak, bakarrik aurrera ateratzeko gauza ez denez, ez al gaitu behar? Xabier Arzallus-ek ondo esan duen bezala; nora joko du Nafarroak? Barruti Unibertsitario bat osatzerakoan, Zaragoza-koa egokiagoa, jatorrizkoagoa al zaio Euzkadikoa baino? Kapitania baten arazoa edo Audentzia baten lurraldearena sortzen denean, egokiagoa al da Nafarroa beste norabait joatea?

Horrenbeste da daki del Burgo jaunak. Baina espainol eta zentralista den batek ezin du bestela pentsatu, eta esan.

Nabarmena da gizon honek ikusten duena.

Lehenengo guda garaian bizi izan balitz, del Burgo ez zen Zumalakarregi-rekin egongo, Mina-rekin baizik.

Bigarrenak harrapatu izan balu: Madoz bat izango zen, gehien jota ere.

Nafarra izateak eta kondizio zailenetan gertatu diren hauteskundeetan aukeratua izateak ez dio *fuera-ixura* eta *zentralista-hutsa* bezala agertzen den gizon honi Nafarroa-ren Foruez hitzegiten duen bezala egiteko mailarik ematen.

Del Burgo bezala eta UCD-ko hautatu bezala hitzegiteko eskubidea ba du, noski.

Baina Nafarroa-ren izenean hitzegiteko, ez.